

MUko 200 ikaslelik gora bilduko dira Unibertsitateak enprendizajea bultzatzeko antolatu duen II. Topaketan

2008/03/17

Arrasate, 2008ko martxoak 14a. Mondragon Unibertsitateak Enprendizajeko II. Topaketa antolatu du unibertsitateko ikasleen artean. Topaketa bihar, ostiralean, izango da, Goi Eskola Politeknikoan. Helburua da enprendizajea sustatzea eta ekintzaile espiritua bultzatzea, unibertsitateko ikasleen artean. Jardunaldia goizeko 9:00etan inauguratuko du Mondragon Unibertsitateko errektoreorde Joxe Mari Aizegak, eta enpresa-mundua ikasleengana hurbiltzeaz gain, horien espiritu ekintzailea sustatzen lagunduko du, sormena eta ekimenen bidalketa sustatuz. 200dik gora ikasleek parte hartuko dute topaketa honetan.

Topaketan Pep Torres adituak ere parte hartuko du, "Ekintzailearen bidea gizarte mediatikoan" gaia azaltzeko. Ondoren, Angel Etxabek beste hitzaldi bat emango du: "Nola garatu negozioaren ideia" gaiaren inguruan. Azkenik, 200 ikasle partaideek lan praktikoa egingo dute taldean, jardunaldia bukatu baino lehen.

Ideia berrien lehiaketa

Enprendizajea sustatzeko II. Topaketarekin batera, Mondragon Unibertsitateak Enpresa-ideia berrien II. Lehiaketa jarri du abian, balio erantsiko produktuak, prozesuak, zerbitzuak edo negozioak sortuko dituzten ideia berritzaileak sustatzeko.

Parte-hartzaileak Mondragon Unibertsitateko ikasle-taldeak izango dira, graduondokoak eta doktoregokoak barne, eta enpresa-aktibitate bat, berria, aurkeztu beharko dute. Interesa dutenak 4 laguneko taldeetan banatuko beharko dira eta maiatzaren 30eko 12:00ak arteko epea dute beren ideiak aurkezteko.

Lehiaketaren oinarriak eta aurkezteko formularioa eskuragarri daude www.mondragon.edu helbidean. Lehiaketarako ideia eta formularioa ekiten@mondragon.edu posta-helbidera bidali behar dira.

Lehen saria, talde irabazlearena, 1.000 euro eta proiektua martxan jartzeko beka izateko aukera dira. Bigarren eta hirugarren talde irabazleak, berriz, 500 euroko saria eramango dute, talde bakoitzeko.

Mondragon Ekiten

Mondragon Unibertsitateak enprendizajearen aldeko apustua egin du, ikasleei ematen dien prestakuntzatik haratago joateko formula gisa. Horregatik, ikasleen eskueran jarri ditu zenbait tresna eta plan integral bat, ikasleen eta irakasleen artean enprendizajea sustatzeko, eta horrela enplegua sustatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko, enpresa-proiektuak bultzatzearen bidez.

Horrela, bai datorren ostiraleko II. Topaketa, bai Enpresa Ideia Berrien Lehiaketa, "Mondragon Ekiten" ekimenaren barruan kokatzen dira. Hori MUK eratuak enpresa-sehaska da, enpresak sortu aurreko faseak garatzearen bidez proiektuak testatzeko balio duena, eta horren ondoren proiektua martxan jartzeko.

Mondragón Ekitenek oinarri teknologikoa duten enpresentzat programa moduan ere funtzionatzen du, eta ikerketa-proiektuak egiten dituzten irakasleei dago zuzenduta, ikerketa-proiektuen bideragarritasuna eta etorkizuneko enpresa-proiektuak aztertzeke.

Baina enprendizajearen inguruko kontuak ez dira hemen bukatzen. Plano akademikoan, unibertsitateak Enpresa Proiektuen Zuzendaritzako Masterra du, Zuzendarien eta ekintzaileen ezagutzak, trebetasunak eta jarrera finkatzeko. Era berean, Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritzako lizentziatura ere badu, Bidasoako campusean, Irunen, ematen dena eta ikaslearen ekintzaile-espirtua sustatzera zuzenduta dagoena.



